

Arrasateko Udala eta euskara

Arrasate, Hego Euskal Herriaren bihotzean dago. Mehatzerreka, Aramaixo eta Deba ibaien urkuluan. Deba Garaiko hiriburua; industrializatzeko prozesu bortitz eta desordenatu bat jasan du, biztanlegoaren hazkunde azeleratuarekin batera. Kooperatibismo industrialaren sorlekua. Hiriburuetatik urrundua, euskarak eta gaztele-rak muga egiten duten eskualde batean kokatua.

Biztanlegoaren %42,6-ak euskara ongi ezagutzen du; beste %15,5 batek erdizka. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean ez dago, jada, A eredurik eta %62 D ereduari ari da. Herriko 55 erakundek (enpresa, eskola, denda, etab...), Udala barne, hitzarmen bat sinatu dute, euren arteko harreman guztiak euskara hutsez garatzeko. Astekari bat, dohainik banatzen da 5.000 inguru etxetan; Arrasate Telebistak (ATB) astean 4 egunez (2 ordu) emititzen du, euskara hutsean.

*«Udaletxearen
jokabidearen
ildo nagusia,
euskararen
aldeko
diskriminazio
positiboa
egitearena izan
da»*

Horra, eskematikoki, Arrasateko herrian euskarak eta bere aldeko lehiak duen osasuna. Kontestu honetan ezin zen, bada, Udaletxea ere atzera gelditu, eta bere jokabidearen ildo nagusia, euskararen aldeko diskriminazio positiboa egitearena izan da; ez erabatekoa, beti ere hiritarren egoera linguistikoari arreta duin bat eskaintzearekin konbinatuz. Hartarako Euskara Batzorde eta Zerbitzu bat dago antolatuturik. Lehen erizpide nagusia izan da, hiritarrei beraiek darabilten hizkuntzan erantzutea, elebitasun antzurik praktikatu gabe. Ondoko koardroetan ikus daiteke euskararen presentzia eta bilakaera Udaletxeko ihardunean.

Urtea	Erregistro Sarrerak			Erregistro Irteerak			Alkatetzaren Ebazpenetan		
	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Eusk.	Eleb.	Gazt.
85	3,11	9,14	87,75	1,19	13,02	85,79	0	36,71	72,41
86	4,28	16,63	79,09	3,80	17,47	78,73	1,44	27,59	76,55
87	7,71	15,51	76,76	9,68	14,58	75,74	8,26	22,01	86,37
88	10,51	12,36	77,13	41,26	10,93	47,82	11,34	5,37	88,66
89	13,42	16,97	69,61	35,51	7,36	57,13	16,55	0	83,45
90	16,68	15,29	68,03	35,68	7,35	56,97	23,28	3,17	73,55

Urtea	Plenoetako Aktetan			Gobernu Batzorde gaietan			Batzorde Informatib. Aktetan		
	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Eusk.	Eleb.	Gazt.
85	0	22,02	77,94	0	2,96	97,04	---	---	---
86	0	22,78	77,22	0,1	2,32	97,59	---	---	---
87	20	23,33	56,66	5,78	0,85	93,36	6,99	0,19	92,82
88	17,72	30,38	51,90	21,16	0	78,84	16,48	1,06	82,46
89	11,52	25,38	63,08	32,44	0	67,56	28,60	0	71,40
90	16,34	26,80	56,86	33,59	0	66,41	32,44	3,46	64,10

Dakusagunez, euskararen erabilpena areagotzen ari den arren, beti da gaztelera baino gutxiago erabilia. Hori idazkietara mugatuz. Ahozko harremanetan, 'euskaran-hizkuntza' izan behar delakoaren ideia gero eta

gehiago ari da gauzatzen, baina ez dago estatistika bidez isladatzerik; oso da aldakorra batetik bestera. Aipagarria da halere, hizkuntza mintzatuaren arloan, Plenoetan gertatzen dena. Bost zinegotzik ez dute euskaraz baizik hitz egiten korporazioko kideekin; publikoarekin ordea, beraiek aukeratzen duten hizkuntza erabiliz. Itzulpen-zerbitzua, beraz, gaztelera baizik ez dakiten zinegotzi horiekin erabiltzen da eta esan beharra dago ez dela batere funtzionala gertatzen, etengabeko mozketak bait dakartza debaterako.

Borobiltzeko gehituko nuke, Udaletxeak argitaratzen dituen iragarkiak, elebidunak direla; preinpresio batzuk ere elebidunak dira eta beste batzuk, galdeketa bat egin ondoren, hartzaileak aukeratu zuen hizkuntzan azaltzen dira. Galdeketa horretan oharterazi zitzaizen interesatuei, erantzunik eman ezean, euskarazkoa aukeratutzat jotzen zuela Udalak.

Hona hemen emaitzak:

Erantzun gabe	%84
Elebidunak	% 3,5
Gaztelera	%10,5
Euskaraz	% 2

Kontestu honetan gertatu da, beraz, PSOE alderdiak jaurti duen eraso/salaketa linguistikoa, bapateko itzulpena ezarriz Pleno Aretoan, Arrasateko Udaletxeak elebakartasuna praktikatzeko duela eta gaztelera erabili nahi duten hiritarrak «erregistro» batean agertzen direla salatuz. Aldi berean Arartekoarengana jotzen dute bere bitartekotza eskatuz.

Hasieran isladatu dugun egoera kontutan hartuz, eta datu estatistikoaren aurrean behintzat, argi dago salaketa honek adierazten duen distortsioa. Areago esango nuke, Udaletxe eta herritarren artean gertatzen diren harremanak baino gehiago dela, bereziki Plenoetan eta Batzordeetan euskara lan-hizkuntza bezala erabiltzeaz (gaztelera itzulpen sistematikorik gabe) sortzen zaion kontraesan jasanezina. Eta hala euskaldunok (euskaraz espre-satzen garenok) elebakartzat jotzen gaituzte, kontutan hartu gabe elebakar bakarrak beraiek (gaztelera baka-rrik mintzo direnak) direla. Ez da egia Udal hau ele-

*«Itzulpen
zerbitzua,
gaztelera baizik
ez dakiten
zinegotzi
horiekin
erabiltzen da eta
esan beharra
dago ez dela
batere
funtzionala
gertatzen,
etengabeko
mozketak bait
dakartza
debaterako»*

bakarra denik (euskaldunon eta euskararen zoritxarrerako); egia da, ordea Udala hau, elebakarra izan dela duela oso urte gutxi arte (gaztelera hutsa erabiliz) eta espero dut berriro ere elebakar izatera helduko dela, euskara gure eguneroko hizkuntza bihurtzen dugunean.

*PSOE*k bere interesak defenditzeko euskara eta Arrasateko Udaletxea erabili egin nahi izan ditu. Hauteskunde-kanpaina baten hasieran, *DV* egunkariak hauteskundetarako zerabilen orrialdeetan azaldu zen hain zuzen, euren prentsaurrekoa. Ez zaie axola herritarren interesa, alderdiarenak baizik. Non egon dira bestela 1987 arte, gaztelera Arrasateko Udaletxeko hizkuntza bakarra izan den artean? Ala, herritar batzuk bakarrik hartzen dituzte gogotan? Ez asko gainera, nire eritzian, operazio honekin boto eskuindar antieuskalduna euren ganatu nahi izan bait zuten bereziki, eta ez euskaraz ez dakitenena.

«Euskaldunok,
euskaraz
espresatzen
garenok,
elebakartzat
jotzen gaituzte,
kontutan hartu
gabe elebakar
bakarrak
gaztelera
bakarrik mintzo
diren beraiek
direla»

Aipatu gabe ezin dut utzi, herriko hainbat erakundek sinatu duten komunikatua, non funtsean exijitzen bait da, administrazioan diharduen edonork (eta zinegotziak ere) obligazioa duela euskara jakiteko. Eta hau da hain zuzen, *PSOE*ko zinegotziek ahaztu nahi dutena.

Arartekoak arrazoia eman dio Arrasateko Udalari, indarrean dagoen legeria ezarriz eta hala dio besteren artean salatzaileei emandako erantzunean:...«este Ararteko concluye que dicha Corporación ha venido utilizando impresos bilingües en sus relaciones con los ciudadanos...».

...«este Ararteko no aprecia que se haya producido discriminación lingüística...».

...«el Ayuntamiento ...indicando que, en el caso de que no se manifesten, las comunicaciones se realizarán en euskara, está haciendo una clara toma de posición a favor del euskara dándole prioridad sobre el castellano y sin que ello constituya ilegalidad alguna...».

Arartekoak, diogu, legeriaren interpretazio soil bat egin du baina ahaztu egin du gaztelera ezagutzea beharrezkoa dela eta euskara ezagutzea ez; eta beraz diskriminazio nabarmena egiten duela legeak (Konstituzioak)

euskararen kontra. Ez diot Arartekoari egotzi nahi errua, inolaz ere, legeari baizik, baina hau da errealitate gordina; hots, diskriminaturik euskarak jarraitzen duela, legean, eta eguneroko praktikan, are Arrasateko udal-etxean ere, ia beti erabiltzen bait da gaztelera gehiago euskara baino.

Halako hainbat kontsideraziotan luza gaitezke, baina bukatu beharrez, konklusio hauek aterako nituzke gertaturiko gorabeheretatik:

- Euskara instrumentalizatu izan da berriz ere, beste interes batzuren mesedetan.
- Euskarak jasaten duen egoera legalaren ahulezia, inolaz ere ez bait du ziurtatzen bere etorkizuna, euskaltzaleon eskuetan geratuz beti bezala bere etorkizunaren bermea.

Zentralismoak euskararen aurka duen xenofobia eta onartezina. Zer gerta daiteke euskara erdararen gainetik jartzen den egunean? Beste norbaitek aginduko al du egun horretan Euskal Herrian!

«Herriko hainbat erakundek sinatu duten komunikatua: funtsean exijitzen da, administrazioan diharduen edonork (eta zinegotziak ere) obligazioa duela euskara jakiteko»

Xabier Zubizarreta

Arrasateko Alkatea